

Eranskina. Orkatza itxaronaldiko baimena

- 1 Baimendunak ehizan jarduteko beharrezkoa den dokumentazioa indarrean izan behar du.
- 2 Ezin dira inola ere bi ehiztari baino gehiago egon itxaronaldian, eta elkarrengandik 600 metrora egon behar dute gutxienez.
- 3 Ehiza-jardunaldi bat hasi eta amaitzen den bakoitzean, 94.446.52.97 telefono-zenbakira deitu beharko da, baimenean jasotako **ID zenbakia** adierazita.
- 4 Baimen honen indarraldia eta ordutegia honako hau izango da: Eguzki-irteeratik 10:00ak arte eta ilundu baino hiru ordu lehenagotik ilundu arte.
- 5 **ORKATZA** espezieko aleei baino ezin zaie tiro egin.
- 6 Suzko arma luze marradunak eta eskopeta erabiltzea baimentzen da. Azken hori bakarrik baimentzen bada, hori berariaz adieraziko da baimenean.
- 7 Baimen hau pertsonala eta besterenezina da; baimendunarekin batera beste pertsona bat ere egon daiteke, baina ezin izango du inolako armarik aldean eraman.
- 8 Baimen hau eta ehizaldia egingo den lursailari dagozkionak apartekoak dira.
- 9 Harrapatutako aleari buruzko informazioa orkatzaren itxaronaldietarako harrapaketen agirian jaso beharko da. Agiri hori www.bizkaia.eus helbidean eskuratu ahal izango da. Harrapaketa agiri horretan erregistratu beharko da ehiza-egun bakoitza.
- 10 Harrapaketak ez badago, baimena, aurreko puntuan jasotako agiria eta krotala, 15 eguneko epean bidali beharko dira Natura Ingurune eta Nekazaritza Saileko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalera, eta, nolahi ere, jasota utzi beharko da.
- 11 Baimendunaren erantzukizunekoak izango dira ehizaldiaren ondorioz sortutako kalte-galera guztiak.

Anexo. Autorización para aguardo o espera de corzo

- 1 La persona autorizada deberá disponer en vigor la documentación necesaria para el ejercicio de la caza.
- 2 En ningún caso podrán coincidir más de dos cazadores en la espera, debiendo encontrarse alejados al menos en 600 m.
- 3 Cada vez que se inicie y finalice una jornada de caza se deberá avisar al teléfono 94.446.52.97 indicando el **número ID** recogido en la autorización.
- 4 El periodo de validez y horario de la presente autorización será el siguiente: Desde el orto hasta las 10:00 y desde tres horas antes del ocaso hasta este.
- 5 Únicamente se podrá disparar a los ejemplares de la especie CORZO.
- 6 Se autoriza el uso de armas de fuego largas rayadas y escopeta. En caso de autorizarse únicamente esta última, ello será indicado expresamente en la autorización.
- 7 La presente autorización es personal e intransferible, pudiendo el autorizado estar acompañado de otra persona que en ningún momento podrá portar arma alguna.
- 8 Esta autorización es independiente de los permisos de la finca donde se vaya a desarrollar la cacería.
- 9 La información del ejemplar capturado deberá hacerla constar en el parte de capturas para esperas de corzo que podrá obtenerse en www.bizkaia.eus. En dicho parte deberá quedar registrada cada jornada de caza.
- 10 La autorización, el parte recogido en el punto anterior y el crotal en caso de no existir captura, deberá ser remitido en el plazo de 15 días a la Sección de Caza y Pesca Continental del Departamento de Medio Natural y Agricultura, debiendo, en cualquier caso, dejar constancia de ello.
- 11 La persona autorizada será responsable de los daños y perjuicios que con motivo de la celebración de la actividad cinegética pudieran causarse.

- | | |
|--|---|
| <p>12 Aurrekoa gorabehera, aleren bat harrapatuz gero, ehiztariak haren beheko masailezurra entregatu behar du, garbi, alea harrapatu ondorengo HILABETEAREN (1) barruan, eta jasota utzi behar du hala egin duela; etiketa batean, grafia ezabaezinez, bere bi abizenak eta izena adierazi behar ditu, animalia zer paraje eta herritan hil duen, eta zer belarritako esleitu zaion.</p> | <p>12 En el caso de capturar un ejemplar, sin perjuicio de lo anterior, la persona cazadora debe hacer efectiva, libre de cualquier sustancia, la entrega del maxilar inferior dentro del plazo de UN (1) MES siguientes a la captura del mismo, debiendo dejar constancia de ella e indicando de forma clara en una etiqueta, realizada con grafía indeleble, los dos apellidos y nombre del cazador, paraje y municipio donde se ha abatido, así como el número de crotal asignado.</p> |
| <p>13 Era berean, hildako basurdearen bi argazki entregatu behar dira, bata albotik ateratakoa eta bestea aurretik. Argazki horiek formatu digitalean bidaltzen badira, artxiboaren izena hau izan behar da: ehiztariaren izen-abizenak eta idazki honen aurrealdean ageri den baimenaren erreferentzia-zenbakia. Argazkiak helbide elektronikoko honetara bidali behar dira: ehiza.arrantza@bizkaia.eus</p> | <p>13 Asimismo, se deberán aportar dos fotografías del animal abatido, una de perfil y otra de frente. En caso de que dichas fotografías se remitieran en formato digital se deberá consignar como nombre del archivo el nombre y apellidos del cazador, así como el número de referencia de autorización designado en el anverso de este escrito. Deberán remitirse a la siguiente dirección electrónica: caza.y.pesca.continental@bizkaia.eus</p> |
| <p>14 Harrapatutako animalia oro zigilatu egin beharko da hura eraisten den unean, eta belarriaren erdialdean jarri beharko zaio emandako krotala, aurreko artikuluan adierazitako argazkietan ikus dadin. Ezinbestekoa da krotala ondo kokatuta egotea egindako argazkietan, krotal-zenbakia behar bezala ikusteko.</p> | <p>14 Todo animal capturado deberá ser precintado en el momento de abatirlo, colocándole el crotal facilitado en la parte central de la oreja para que sea visible en las fotos indicadas en el artículo anterior. Es indispensable que el crotal y el número de crotal se vean correctamente colocados en las fotos realizadas.</p> |
| <p>15 Harrapaketarik egin ez bada eta beste itxaronaldi bat egin nahi bada, Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalera bidali behar dira itxarote-partea, behar bezala beteta, beste itxaronaldi horretarako baimena eskuratu baino lehen; aurreko baimenarekin emandako belarritakoa, aldiz, gorde egin behar da.</p> | <p>15 En el caso de no haberse producido captura y desear un nuevo aguardo, se deberá remitir a la Sección de Caza y Pesca Continental los partes de espera debidamente cumplimentados previamente a la obtención de la autorización de la nueva espera, conservando el crotal de la anterior autorización.</p> |
| <p>16 Aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez bada, baimenduna zelata-ehizarako desgaituta geratuko da bi urterako, eta, horrez gain, zehapen-espedita bat ere hasi ahal izango da, hala badagokio.</p> | <p>16 El incumplimiento de cualquiera de las condiciones anteriores supondrá la inhabilitación de la persona autorizada para cazar a la espera en el periodo de dos años, sin perjuicio de la incoación de un expediente sancionador si fuera procedente.</p> |